

EUSKALTZAINDIAREN 75.URTEURRENEKO OSPAKIZUNEN-HASIERAN

Oñati, 1993.10.01

*Angel M. Iturbe,
Oñatiko alkatea*

Nire ongietorririk beroena guztioi:

Oñatiko herriaren ordezkari izatea egokitu zaidan honetan, herritar guztien izenean eta neurean adierazi behar dizuet zer nolako poza ematen digun, honelako ospakizun hau Oñatin burutzeak; gertakizun handia baita Euskaltzaindia jaio zeneko 75.urteurrena ospatu berri dugun Eusko Ikaskuntzarena bezalaxe, biok Oñatin sortuak.

Euskaltzaindia, aspaldidanik egiten ari ziren ahalegin ugariaren burutze eta instituzionalizatzea izan zen; besteak beste, azpimarragarria hauen artean 1.564an Nafarroako Erregina zen Albret-eko Joanak bere garaian euskararen aldeko bultzada historiko hura.

Gaur arte, sortu zeneko Euskaltzaindiaren 75.urteko ibilbide luzean, ugariak izan dira. Erakunde ezberdinek eta gizon-emakume ezagunek euskara, gure ama-hizkuntzaren ofizialtasuna lortzeko egindako aporazio eta ahaleginak.

Era berean esan dezakegu, leialtasunez aritu izan dela eta tinko jarraitzen duela Euskaltzaindiak, gaur bezalako egun batean, Oñatiko Unibertsitate honetan, bere aintzindariak ahobatez ezarri zizkioten egitekoak burutzen.

Eta derrigorrez azpimarratu behar, hizkuntzaren batasunean, zainketan eta euskararen berreskurapenean egin duen lan eskertezina, bai eginkizun zientifiko propioaren bidez, bere argiralpen ugariaren bitartez, irakaskuntzan edo eta aholku emanez.

Lortutako helburuen garrantziaz jabeturik, gerraondoko urte gogor haietan, ia dena aurka zutelarik gure hizkuntzaren aldeko borrokan tinko jardun zuten haiek ekarri nahi ditut gogora.

Hala ere ez dut nahi guztiau esker hutsean gera dadin oso bestelako erreflexio edo gogoeta batetara eraman beharko gintuzke: Euskadi-arentzat horrenbesteko garrantzia izan zuen ahalegin hartan zuten onena eman zutela ikusiz ondorengook ere, bide beretik eurek hasitakoari jarraitu behar diogula ikustera, alegia.

Alde horretatik, Udal Administrazioaren arduradun izanik, Oñati-arentzat ohorea izan dela ospakizun garrantzitsu hau antolatzen lagundu izana esan behar dizuet eta, 75.urteurren honetako ekintzak behar bezala burutu daitezzen, zuen esku jarri ditugula gure bitarteko guztiak, eta guztia desio bakar batekin: Euskaltzaindiaren helburu guztiak arrakastaz bete daitezela.

Amaitzeko, Oñatiko zuen egonaldia atsegina izan dadin opatuz, Euskaltzaindiaren sorrerako une hartan, Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuaren irekiera-saioan Alfonso XIII. Erregeak esandakoak erabiliko ditut: “Landu ezazue zeuon hizkuntza, milurteko euskara beneragarria, Gizardiaren altxorreko oso baliodun bitxia, zuen gurasoengandik eskuratutakoa eta ondorengoei oso-osoan utzi behar diozuenena”.

Mila esker zuen arretagatik.

EUSKALTZAINDIAREN 75.URTEMUGA

Oñati, 1993.10.01

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

- Lehendakari jauna,
- Sr. Presidente del Gobierno Foral de Navarra,
- Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko diputatu nagusi jaunak,
- Oñatiko alkate jauna,
- Beste agintari,
- Kultur erakunde,
- Euskaltzainkide,
- Jaun-andereak. Agur.

Sartzen ari da Euskaltzaindia bere 75. urtemugan. Egia erran, Oñatiko Biltzar Nagusian, 1918ko irailean, izendatu ziren lehenbiziko lau euskaltzainak: Resurrección Maria Azkue, Arturo Campión, Luis Eleizalde eta Julio Urkixo. Urte baten buruan, 1919.eko irailaren 2lean, Donostiako Foru Aldundian izendatuak izan ziren bertze zortziak eta hamabi horietan 9 Hegoaldekoak ziren, 3 Iparraldekoak. Bildu ziren lehen aldikotz Donostiako Foru Aldundian 1919.eko urriaren 7an.

75 urte iragan dira, ospakizunak hasten dira 1993.eko urriaren 1ean, urte oso bat iraunen dute eta bururatuko dira Leioan 1994.eko urriaren 7an. Duela 25 urte urriaren lehen biziko egunetan Euskaltzaindiak antolatatu zuen Arantzazuko Kongresua euskara batuaren lehenbiziko urratsen hastapenak zirela.

Bi urtemuga horiek ditugu gogoan: Euskaltzaindiaren sortzearena, euskara batuaren sorrerarena. Bere bizian Euskaltzaindiak eman dituen urratsetan horiek dira bi premiazkoenak eta euskara batuaren bizian ikus dezagun zer egin den orain artino eta zeri buruz goazen.

Arantzazun eztabaidak izan ziren hiru egunez eta gero Euskaltzaindiak egin zituen proposamenak. Hamar urteren buruan Bergaran egin zelarik euskara batuari buruzko bertze Kongresua argi eta garbi zegoen euskaltzale gehienek, idazle, irakasle eta abar onartu zituztela Euskal-

tzaindiak eginikako proposamenak, ortografiak, deklinabideaz, erakusleez edo aditz laguntzaileez. Orduz gero bidea irekia zen. 1968tik, eta 1978 arte eginikako urratasa, garrantzi haundiko urratasa izan zen.

Entzuten da noizbehinka, hemen edo han, hainbertze lan eginik 70.hamarkadan, eztitu duela urratsa Euskaltzaindiak eta, diote batzuk, lokartu dela. Nik erran nezake ez dela egia. Alabaina epe bat beharrezkoa zen ikusteko nola hartuak ziren Bergarako Kongresuaren ondotikako erabakiak. Argi eta garbi dago euskara batuak edo hobeki erran euskara baturantzeko bidea segitua dela. Aski da ikustea urtero argitaratzen diren liburuetan, hala nola egunkari, astekari, aldizkarietan edo euskal administrazioek bai Komunitate Autonomokoak, bai Nafarroakoak beren agerkarietan bide beretik doazela. Hogeita bortz urteren buruan euskara batuak egin du bere ziloa. Nehork ez dezake hori uka.

Anartean zer egin du Euskaltzaindiak? Ez da, segurki, lo egon. 1979an Foruan eta 1981ean Loiolan, bere barne-jardunaldietan sortu zituena bortz batzorde nagusi: Hiztegia, Gramatika, Dialektologia, Onomastika, Literatura. Batzorde bakoitza lan luze eta sakonetan sartu da, Euskaltzaindiaren xedek betetz.

Hor daukagu *Orotariko Euskal Hiztegia*, 1984ean lanean hasia, seigarren liburukia joan den uztailean agertu duena. Hor ere LEF (Lexiko erizpideen finkapena) azpibatzaordea hitz elkarketen proposamenak eginik txosten haundi eta aberats batean, *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* deritzana, bospasei urtetako lanaren fruitua.

Gramatika batzordeak azken hamar urte hauetan eskaini dizkigu sei liburuki eder: *Lehen urratsak I* (Perpau bakunaz), *Lehen urratsak II* (Aditzaz), *Lehen urratsak III* (Lokailuez) *Euskal Gramatika Laburra* eta segitzen du bere lana, ixilean baina fermuki joskerari buruz.

Hizkuntza Atlasak bortz urtez bururatu ditu inkestak Iparraldeko eta Hegoaldeko 145 tokitan, 2.800 galdera eginez toki bakoitzean. Orain datu horiek informatizatzen dituzte talde horretako langileek, paregabeko altxorra, euskara mintzatuaren altxorra, bereganatu dutelarik, fonoteka baten mamia, ahanzi gabe Bilbon egindako Dialektologia Kongresua 1991an.

Onomastika batzordeak lau biltzar antolatu ditu, Gasteizen, Urduñan, Lizarran eta igaz, Nevadako Unibertsitatean. Bi gobernuen aholkulari izanez Euskaltzaindia agertu dira Komunitate Autonomoko eta Nafarroako herri-izenak, Iparraldekoak ere, hots, Euskal Herri guzikoak. Leku-izen, deitura, ponte-izenak, azterketa sakonak egin ditu ta sartu da orain exonomastikan sortu duelarik, bide nabar, liburu sorta bat *Onomasticon Vasconiae* deritzana.

Literatura batzordeak badu zer eginik. Aipa ditzagun bakarrik azken ekitaldiak: Herri-Literaturari buruzko II. jardunaldiak: Herri-narratibaz eta Oihenarti buruzko Kongresua, hau Iparraldean.

Hauxe da azken hamar urteotako uzta. Ez da hain txarra. Horrekin betetzen ditu orain artino bete ez diren Euskaltzaindiaren xedeak, xede nagusiak direla arautegiko lehen artikuluan.

- a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.
- c) Hiztegia biltzea.
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea.

Xede berberak ziren duela 75 urte, xede horien betetzen hasi da kar haundirekin Euskaltzaindia Arantzazuko Kongresutik landa duela orain 25 urte.

Etorria da orain aurrera joateko ordua; 75.urtemuga eta 25.urtemuga horien karietara zeri buruz jokatu da Euskaltzaindia?

Derradan lehenik ez dela debaldetan lanean arizana. Bildu ditu bi altxor paregabekoak, orain artio bildu ez direnak: euskara idatziaren altxorra *Orotariko Euskal Hiztegiari* esker, euskara mintzatuarena Hizkuntza Atlasaren bitartez. Baliagarriak dira biak erakusten digutelakotz non, noiz eta zer idatzi den Euskal Herri osoan, hitzen errannahia, hitzen maiztasuna, euskara batuaren oinarri gisa balia daitekeena, osagarritzat daukala non zer mintzatzen den Hizkuntza Atlasari esker.

Hortakotz sortu du Euskaltzaindiak batzorde berri bat: Euskara Batuko batzordea izenekoa. Batzorde honen lana da, hain zuzen, datorren urteko Kongresuari buruz, Iker Saileko batzordeen lanen koordinatzea.

LEF (Lexiko erizpideen finkapena) hitz elkartuen osaera eta idazkera bururatu-eta, sartzan da erator-atzizkien azterketetan eta jardunaldi batzuen ondotik eratorpenari buruzko emaitzak proposatuko ditu eztabaidatuak izan daitezzen.

Hiztegi Batuko batzordeak, hau ere berrikitan sortua, 5.500eko hitz zerrenda eskainiko die euskaltzainei eta iritzi-emaileei, bazka ederra izanen baita eztabaidarako.

Gramatika batzordeak nahi luke aurrepausua eman erakutsiz zer oker bide behar den hetsi, nabarienak bederen, deklinabidea osatu eta sekulan hunkitu ez diren hitanozko formei lehen proposamena egin.

Onomastika batzordea deiturei buruz ariko da eta exonomiako lanei jarraikiko zaie. Dударik gabe euskara batuari buruz, nola idatzi behar diren atzerrietako toponimoak euskara batuaren onerako baliagarria izanen da komunikabide guzientzat (liburu, prentsa, irratia eta telebista...).

Literatura batzordeak, beti euskara baturantzeko bideak urrats bat gehiago emateko proposatuko ditu metrikaren gutieneko arautegia, literatura kritikaren hiztegi batua, zenbait kontzeptu berezi euskal ikuspegi-tik finkatuz.

Nola utz alde batera euskal ahoskera. Gai nekea izanik ere, badago zer egin. Gai hori aztertuko dute zenbait ikerlarik: Patxi Altuna, Iñaki Gaminde, Jose Luis Alvarez "Txillardegi", Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Pilartxo Etxeberria, Juan Ignazio Hualde, Lourdes Oñederra, Rosa Miren Pagola eta Xarles Videgain. Ikusiko da zer gomendio mota egingen duten.

Urte oso bat iraganen du Euskaltzaindiak jardunaldiak antolatuz, ikerketak eginez, urte oso bat, 1993.eko urriaren leian hasiko dena eta 1994.eko 7an bururatuko dena Kongresu haundi batean. Hain zuzen Kongresu hori egingen da Leioan, Euskal Herriko Unibertsitateko gela nagusian 1994.eko urriaren 3tik 7ra astelehenetik ortziratera arrats arte.

Biltzar edo Kongresu hori irekia izanen da euskaltzain, urgazle guzientzat eta euskara baliatzen duten taldeen ordezkariarentzat: argitale-txeak, unibertsitateko irakasleak, hezkuntzako irakasleak, komunikabi-deak, idazleak, itzultzaileak, administrazioan daudenak... e.a. Dei zabala egingen du Euskaltzaindiak, Erakunde Publikoa izanez bertzeen iritziak nahi baititu jakin, euskarak batasunerako bideak gehiengoaren onespina behar baitu.

Biltzarrean proposamenak entzunen eta eztabaidatuko dira, baina proposamen horiek Euskaltzaindiak berak, gauzatuko ditu, erabakiak hartuz dagokion unean, biltzarra bururatu ondoren, Arantzazun eta Bergaran egin zuen bezala.

Badago lan urte osoko lana, urritik urrira, gororatuz lehenbiziko lau euskaltzainak izendatuak izan zirela 1918ko irailean lehenbiziko euskal estudioen Kongresuan eta Euskaltzaindia bere osotasunean bildu zela lehen aldikotz Donostiako Foru Aldundian 1919.eko urriaren 7an, kon-tuan hartuz ere Arantzazuko Kongesua bildu zela 1968.eko urriaren 3tik 5era.

75. urtemuga, 25. urtemuga, hau Euskaltzaindiaren urrezko ezteien karietara. Orduan eman zen lehenbiziko urratsa. 25 urteren buruan eus-kara baturantzeko bidean urrats bat gehiago.

EUSKALTZAINDIAREN HIRUROGEITA HAMABOSGARREN URTEMUGAKO OSPAKIZUMEN HASIERAN

Oñati, 1993.10.01

*Eli Galdos,
Gipuzkoako foru diputatu nagusia*

Lehendakari jauna,
Nafarroako Gobernuko lehendakari jauna,
Euskaltzainburu eta euskaltzain jaun-andreak,
euskaltzale guztiok.
Arratsaldeon.

Aste pare bat besterik ez da pasa Oñatin bertan Eusko Ikaskuntza-
ren diamantezko ezteiak ospatzeko bildu ginenetik. Gaur, ordea, Euskal-
tzaindiaren hirurogeita hamabostgarren urtemuga da, historiaz beteriko
Unibertsitate honetara bildu gaituen ospakizun pozgarria. Lehengo egu-
neko ildo bereko ospakizuna, beraz, ildo eta baratz beretik jaio eta hazi
baitziren mila bederatziehun hamazortzigarren urtean, gure mende hon-
etan zehar euskara eta euskal kultura landu, zaindu eta iraunarazi di-
tuzten bi erakunde hauek.

Aurrekoan bezalaxe, gizalegeak ezezik gogoak ere agintzen duenari
bidea emanaz, bihotz-bihotzez zoriondu nahi nuke Euskaltzaindia egun
seinalatu honetan. Eta nirearekin batera, ziur nago Arabako eta Bizkaiko
diputatu nagusien sentimendu beretsua adierazten dudala (eta niretzat
ohorea da gaur hemen hiruron izenean mintzatzea) poz handiz zorion-
tzen dugula Euskaltzaindia esaten dudanean. Abenturaren partaide sen-
titzen denaren poz bereziaz, Euskal Herriko foru aldundiak jaiotze-
tik izan garelako Euskaltzaindiarentzat sortzaile, bultzatzaile eta susper-
tzaile.

Gauza aski ezaguna izan arren, ezin aipatu gabe utzi, beraz, Araba,
Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako diputazioen babesean sortu zela Eus-
kaltzaindia mila bederatziehun eta hamazortzigarren urtean, Kosme El-
gezabal eta Felix Landaburu Bizkaiko diputatu jaunek egindako propo-
samenari oniritzia emandakoan.

Eta orain dela hirurogeita hamabost urte Elgezabal eta Landaburuk eskatzen zutena beteaz, demokrazia berrantolatu zenetik ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioak, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin batera, baita, duela gutxi, Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorra ere, izan dira Akademiak lan egiteko behar zituen dirua, egoitzak eta baliabideak helarazi dizkietenak.

Lan oparoa eta emankorra burutu du Euskaltzaindiak urteotan. Eskergaitza. Eta geroari begira ere, ez da makala eginkizun duena. Baina jakin ongi badaki Euskaltzaindiak euskara landu, zaindu, finkatu eta bartzeko ez zaiola faltako euskal erakundeen laguntza sostengua, ez zaiola faltako, gure kasu zehatzean, hiru foru aldundien laguntza eta sostengua.



Oñati, 1993.10.01

Ezkerretatik eskumatara: Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kulturako diputatua; Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jose Antonio Ardanza, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Lehendakaria; Juan Cruz Alli, Nafarroako Gobernuburua; Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusia; Angel Mari Iturbe, Oñatiko alkatea eta Endrike Knörr, Euskaltzaindiko idazkaria.

Niri ustez, erakunde baten ibilbide luzea baino askoz gehiago ospatzen dugu gaur hemen. Izan ere, ezin da ahaztu euskararen aurkako erasoak bortitzak eta ugariak izan direla XX. mende honetan. Eraso guztien gainetik eta arazo guztien azpitik aurrera egin du, ordea, gure hizkuntzak, bizirik eta berrindarturik jarraitzeko baliabideekin horniturik atera da euskara prozesu honetatik eta momenturik zailenetan erantzun egokia eta zuzena ematen asmatu du Euskaltzaindiak.

Adibide ugari eman nezake esandakoaz, baina guzti horien artean bat aspimarratu nahi nuke bereziki, Oñatin gaudenez, eta diamantezko ezteiekin batera aurtan ere Euskaltzaindiaren beste bilera txit garrantzitsu baten zilarreko ezteiak ospakizun baitugu, hots: Arantzatuko bilarena hain zuzen ere. Hau da: euskara batuarena.

Eleizalde berak idatzita utzi zuenez, Euskaltzaindia euskararen batasuna lortzeko jaio zen: “bakarra eta bateratuaren beharrezko moldea” bere hitzetan esanda. Euskalki literariorik gabe, hizkuntza estandarrik gabe, azken hogeitabost urte hauetan eman den bateratze prozesurik gabe, ez zen biziko gure hizkuntza, ez zen gauza izango bizitza modernoak, teknologiak, komunikabideek eta abarrek planteatzen duten erronkari erantzuteko. Arantzazun Euskaltzaindiak datorren mendean euskarak hizkuntza modernoa bezala bizirik iraun dezan ezinbesteko oinarriak jarri zituen eta honek, nire ustez, hirurogeita hamabost urte hauetako balantzea egitean, aipamen eta errekonozimendu berezia ongi merezia du.

Zorionak, beraz, Euskaltzaindiari urtebetetzeagatik eta gure eskerro-
na Euskal Herriari etengabe eskaintzen ari zaion lan eskergagatik.

Etorkizunari begira, berriz, nahikoa duzue zuen enblemaren goiburuak dioena praktikara eramaten segitzearekin: *ekin eta jarrai*. Enpresa horretan lankide eta babesle izango gaituzue, dudarik ez egin, lanean, eguneroko lan trinkoan, eta ez beste inon, aurkituko baitu euskarak irauteko eta indartzeko behar duen kemena.

Honela izan dadila!

Mila esker.

CONMEMORACION DEL 75 ANIVERSARIO DE LA FUNDACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

Oñate, 1 de octubre de 1993

*D. Juan Cruz Alli Aranguren,
presidente del Gobierno de Navarra/Nafarroako Gobernuburua*

Lehendakari jauna,
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputatu nagusiak,
Jaun-Andreok.

Es un honor poder participar en los actos académicos que Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, ha organizado con motivo del 75 aniversario de su fundación.

La tímida andadura que la institución lingüística iniciara en 1918 a la sombra de estos muros, de la mano de Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, a instancia de las cuatro diputaciones hermanas entre las que figuraba desde el principio la de Navarra, ha ido dejando huella cada vez más fecunda en el camino de la normalización de la lengua vasca para la necesaria adaptación a las exigencias de los nuevos tiempos. Ha sido fiel el mensaje de S.M. Alfonso XIII el primer Congreso de Estudios Vascos (01.09.1918): “cultivad vuestra lengua, el millenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habéis recibido de vuestros padres y debéis legar, incólume a vuestros hijos”.

Me complace destacar como nota propia y mérito singular de Euskaltzaindia el haber sobrevivido sin solución de continuidad incluso en el trienio difícil de la Guerra Civil (1936-1939), gracias a la presencia permanente de su presidente don Resurrección M.^a de Azkue, monumento incombustible que mantuvo viva la llama de la continuidad en la sede precaria de la calle Ribera.

Navarra ha respondido con eficiencia en todo momento al compromiso contraído con Euskaltzaindia, con el deseo de hacer justicia a los hombres que, con talante abierto, propiciaron el deshielo en el campo de las actividades culturales autóctonas, Navarra creó la Sección de Fo-

mento del Vasconce desde la Institución Príncipe de Viana, impulsando con carácter institucional fiestas vascas, concursos de bertsolaris incluso en el Teatro Gayarre de Pamplona, y, sobre todo, aquella iniciativa simpática de ir pueblo a pueblo premiando con un sencillo diploma y una cantidad simbólica en cartilla de ahorro nominal a cada niño navarro en edad escolar, que acreditara mediante una elemental demostración el conocimiento de la lengua de los navarros. El suplemento euskérico de la Revista *Príncipe de Viana* se distribuía mensualmente a las siete mil familias que previamente figuraban en la relación de concededores y simpatizantes de la lengua de los navarros.

La creación, en 1969 de la revista *Fontes Linguae Vasconum*, que con tanto entusiasmo y mimo prohió Luis Michelena, atrajo pronto la atención de los mejores lingüistas interesados por la lengua vasca a nivel internacional y ha sido la aportación práctica de las autoridades navarras a la difusión de los trabajos de investigación lingüística que, fiel a la línea fundacional, sigue abierta a los estudiosos de la lengua vasca.

Desearía subrayar con esto que la preocupación de los dirigentes navarros por la suerte del euskera, en proceso de recesión galopante durante mucho tiempo, no se limitó al patrocinio de la Academia, sino que tomó la iniciativa de prestigiar en momentos difíciles la imagen deteriorada del idioma, fomentar oficialmente su conocimiento e impulsar su utilización.

La presencia activa de personas de la Comunidad Foral en la historia de los 75 primeros años de la Academia es Campión, presente en los albores de Oñati, hasta los cuatro representantes actuales, son doce los miembros de número designados por la entidad, aunque tres de ellos por distintos motivos a penas tuvieron más protagonismo que el de figurar en la correspondiente acta de la sesión académica. Tres son los académicos honorarios que ha tenido hasta ahora Navarra y es muy nutrida la relación de los miembros correspondientes.

Desde el punto de vista jurídico la Ley Foral del Vasconce, reconoce oficialmente a Euskaltzaindia el título de organismo consultivo del Gobierno de Navarra en materia lingüística. Fruto de ello ha sido la publicación por cargo del Ejecutivo, entre otros trabajos, del *Nomenclator euskérico de Navarra*, que estudia y propone los nombres vascos de las entidades de población que figuran en el listado del Instituto Nacional de Estadística.

Pero esta joya cultural, que nuestro rey Sancho el Sabio llamó Lengua Navarrorum y que con la misma denominación figura en otro documento referente a las pertenencias de Zamartze, no es patrimonio exclusivo de los vascos, sino tesoro perteneciente a la cultura de los

pueblos de Europa por tratarse de la lengua más antigua del Viejo Continente, como lo puso de manifiesto Don Menéndez Pidal:

“Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la improtancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida”.

Nos hemos de congratular por los logros de Euskaltzaindia en esta primera etapa de su historia, animándole a trabajar con ahínco —*Ekin eta Jarrai (Insistir y Continuar)*, como reza su lema— para dotar a la lengua vasca de los requisitos indispensables a fin de que pueda responder con eficacia al reto que plantean los tiempos modernos.

De este modo la lengua histórica de Europa sería también idioma del futuro para sus afortunados depositarios.

Si todos asumimos la realidad plurinacional, pluricultural y lingüística, el euskera se valorará como patrimonio cultural y seña de identidad de un pueblo, que tiene su lugar en la sociedad, por el convencimiento de que la cultura enriquece, no por la dominación, sino por el respeto a la diferencia.

EUSKALTZAINDIAREN HIRUROGEITA HAMABOSGARREN URTEURRENA

Oñati, 1993.10.01

*Jose Antonio Ardanza Garro,
Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Lehendakaria*

Agur jaunak,
Agur andereak.
Agur t'erdi.

Euskaltzaindiaren egun haunditan, zuekin, euskaltzain, euskalari eta euskaltzaleekin hizketatzeko aukera eta zoria izan dut. Hementxe, Oñatin, burutu zen herri-agintarien eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Geroztik Bilbon elkartu ginen denok, Euskaltzaindiari bere Egoitza Nagusia eskaintzerakoan. Elkarren berri eta harreman gehiago ere izan dugu, jakina, urteotan. Azkenengoa, joan den uztailaren 30ean, Paben, Frantziako Hezkuntzaren arduradun nagusi eta Pirineo Atlantiarretako Kontseilu Orokorreko Presidentea, ongi-etorri eta harrera beroa eskaini zizuen egun gogoangarri eta sinbolismoz betetako hartan. Eta gaur, Euskaltzaindiaren diamantezko ezteiak ospatzen hasteko elkartu gara bere sorterrian, Oñatin sortu baitzen Euskaltzaindia orain 75 urte.

Sortu ere sortu, herriaren altxorrik, ezaugarriarik eta bizi-zentzurik preziatuena zaintzeko, jasotzeko, berpizteko, eta batzeko sortu zen. Eta iraun ere eginkizun horrekiko maitasunak eutsirik iraun du, eraunsi eta ekaitz zakar eta luzeen artean. Urte zailtan irauten jakin zuelako, ordea, fruitu umotuak ematen dituen landare bihurtu da aldeko giroa suertatu zaion orduko.

Egitekoak ere, jakina, lehen baino haundiagoak eta presakakoagoak ditu gaurregun. Besteak beste, irakaskuntzarako, komunikabideetarako eta administratziarako batu eta egokitu behar da euskara. Horretarako, Euskaltzaindiarengan ipini dute uste osoa Herri honek eta Herri honetako agintari eta erakunde desberdinek. Orain 75 urte hemen zeuden Hegoaldeko lau diputazioak eta gaur ere hementxe gaude denok. Izan ere, hizkera desberdinak egiten baditugu ere guztion euskara bakarra

baita funtsean, han eta hemen. Eta erakunde politiko desberdinetan bizi arren, Euskaltzaindia dugu denok gidari, irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan erabiltzen den euskara gero eta berdina izan dezagun. Axularrek salatzen zuen bezala ez baitugu euskara gero eta desberdina eta elkarrentzat ulerkaitzagoa izaterik nahi, “zeren erresumak baitituzte diferent”. Antolamendu politiko desberdinetan banatuak izan arren, euskara bakarra nahi dugu. Eta horretarako aholkulari eta gidari bera onartu dugulako gaude gaur hemen Euskaltzaindiarekin bat eginik.

Ez da gutxi. Euskara batzeko asmo eta bideetan harrotu ziren haustak ikusirik, besterik ere gerta baitzitekeen. Baina honetan bederen euskaldunok izan dugu burubiderik, malgutasunik eta ezaguerarik, zorionez. Eta Euskaltzaindiak bere lana askatasun eta sosegu osoz egiteko aukera du gaurregun. Erantzukizuna ere, jakina, aukera horren araberakoa da.

Erantzukizun horretan ez da bakarrik utzi, noski. Inoiz baino giza eta diru-baliabide hobeak baititu bere esku. Eta orain 75 urte ez bezala laguntzaile baliotsuak sortu zaizkio inguruan: Unibertsitateak, euskal filologia, euskararen irakasle katedradunak, euskal liburugintzan, hiztegi-gintzan, ikerkuntzan, euskal komunikabideetan, administrazioan eta abarretan diharduten taldeak eta elkarteak.

Euskaltzaindiari eta euskararen langile guztiei, nire eta agintari guztien eskerrona agertu nahi nieke ospakizun honetan, gaur jasotzen ari garen uzia beste batzuk urte zailetan, ereindako haziaren fruitua dela gogoratuz. Baina eskerronarekin batera, elkarlanerako deia egin nahi dizuet guztioi. Batez ere, azken urteotan egin dena azter dezagun eta egi-teke dagoena burutu.

Euskaltzaindiko jaun-andreok,
zorionak eta eskerrik asko.